

2007KO OTSAILAREN 14KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta zazpiko otsailaren hamalauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko urtarrilaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA ZORTZI MILA ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO eta BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (108.058,58 €)takoa eta 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA BOST MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO eta BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (125.276,53 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- MIKELAR KALEKO URBANIZAZIOAREN 2. ZERTIFIKAZIOA.-

Mikelargo birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Injelan, S.L.ko Iñaki Laskurain Gisasola Injeneriak lanen 2. zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA BI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO eta LAUROGEITA BAT ZENTIMO (82.499,81 €) da.

Udal Arkitekta teknikoak bere oniritzia eman dio zertifikazio honi.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, guztien adostasunarekin Mikelargo birrurbanizazio lanen 2. zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- PLAZAKO ESPALOIAREN 2. ZERTIFIKAZIOA.-

Udaletxea eta Plazako Frontoiaren artean espaloia eraikitzearen lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak lanen 2. zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO eta HIRUROGEI ZENTIMO (94.532,68 €)takoa da. Lan hauek burutzen ari dena Fronton Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (Constr. Donosti, S.A. eta Urbanizaciones Iruña, S.A.) da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, guztien adostasunarekin Euskadi Enparantzako Espaloia lanen 2. zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 792 zbk.dun esped.: interesatuak hala eskaturik baja ematen zaio zerbitzuan 2007ko urtarrilaren 23ko datan.
- 471 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzan sartua izan dela eta, baja ematen zaio zerbitzuan 2007ko otsailaren 6ko datan.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 737 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 133,84 € ematea urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %58a da.
- 707 zbk.dun esped.: oinarrizko premietarako hilean 150,00 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 627 zbk.dun esped.: alabaren haurtzaindegi eta jangelako gastuak ordaintzeko hilean 136,00 € ematea, urtariletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 111 zbk.dun esped.: dentista gastuetarako 250,00 € ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 787 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko dirulaguntza aldatzea, hilean 21,07 €tik 40,07 €ra, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 745 zbk.dun esped.: onuradunaren eskariz baja zerbitzuan 2007ko otsailaren 6ko datan.
- 640 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzara joan dela eta, zerbitzuan baja 2007ko urtarilaren 15eko datan.
- 741 zbk.dun esped.: onuraduna egoitzara joan dela eta, zerbitzuan baja 2007ko otsailaren 6ko datan.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, mintzalaguna proiektuan, 2006ko irailtik abendura bitartean egindako lanengatik, Goierriko Euskal Eskolari sei mila lauehun eta hogeita hamabost (6.435 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.